

C MAILA



2025

SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA



SORALUZEKO
UDALA

MARITXUREN AMETSA

C MAILA

1.saria

LAIDA SÁNCHEZ
MARTÍNEZ

Bazen behin Maritxu izeneko neska bat, 10 urte zituen. Maritxu neska alaia, ausarta, ile hariduna eta begi urdinak zituen. Mantxuri futbolean jolastea asko gustatzen zitzaion, eta gauza bakarra zuen buruan futbolaria izatea zen. Maritxu Antzuolakoa zen, eta herriko taldean jokatzen zuen.

Arratsaldea iritsi zen eta Maritxuk baloia hartu eta eskolako patiora abiatu zen. Momentu hartan ez zegoen inor eta ondu betez bakarrik egon zen. Ordu bat pasa eta gero, bi mutil heldu ziren, Mikel eta Urritz izenekoak:

- Maritxu alde hemendik.- oihukatu zuen Mikelek.
- Hori, hori!- esan zuen Urritzek, Mikelek esandakoari jarraituz.

Maritxuk ezetz esan eta futbolean jolasten jarraitu zuen.

- Ez duzu entzun esandakoa ala?- esan zuen Urritzek.
- Kanpora ala baloi gabe geldituko zara!- oihukatu zuen Mikelek.

Maritxuk futbolean jolasten jarraitzen zuen, eta halako batean Mikelek baloia hartu eta eskolako teilatura jaurti zuen.

- Zertan ari zara?- galdetu zuen Maritxuk, malkoz beteta zegoen bitartean.
- Negar egitera negartegira!- bota zuen halako batean Urritzek.

Maritxu malkoz bete-beterik zegoela etxera joan eta sofan etzan zen, halako batean aitona agertu zen.

- Maritxu, ez zoaz futbolean jolastera?- galdetu zion aitonak.
- Ez daukat gogorik.- erantzun zuen Maritxuk, negarrez zegoen bitartean
- Zer gertatu zaizu?- galdetu zuen aitonak.

Maritxuk gertatutako guztia kontatu zion aitonari eta aitona aholkuak ematen hasi zen.

-Lasai Maritxu, mutiko hauek ez dute ideiarik futbolaz. - erantzun zion aitonak besarkada eman eta gero.

-Baina, baina...

-Ze baina eta ze baine, hemen ez dago bainarik. Irten kalera eta borrokatu zure ametsagatik!- erantzun zuen aitonak amorruez beteta.

Maritxuk baloia hartu eta aitonak esandakoari kasu egin zion. Kalera irten zen eta bertan hiru ordu ibili zen JO TA KE futbolean. Etxera bueltatzeko ordua iritsi zen eta aitonaren etxean pasa zuen gau osoa. Afaltzeko ordua iritsi zen, eta Maritxuk aitonari gauza bat esan zion:

-Aitona, futboleko jokalaria profesionala izaten naizenean, lehen gola zuri eskainiko dizut.

Aitonak poz-pozik irribarre egin zuen.

12 urte igaro ondoren eta 12 urtez lan egin eta gero, Maritxuri ametsa betetzeko momentua iritsi zitzaion. Errealean jokatzen zuen eta gaur Anoetan lehenengo partida jokatuko zuen, jokalaria profesional bezala. Zoritxarrez aitona orain dela, hiru urte hil zen eta zelaian egon ez arren Maritxuk esandakoa bete egin behar zuen.

Partida hasi zen eta Partida enpatauta zegoen, azkenengo minutuak falta zinen Maritxuk porteriara jaurti eta gola sartu zuen, gola sartu eta zerura begira honako hau esan zuen:

-Zuregatik, aitona!

AURKITUKO DUGU?

C MAILA
2.saria
IZARO VEGA
ÁLVAREZ

Bazen behin nerabe lagun talde bat, eta hau da bere historia.

Gu bost kideko kuadrilan ibiltzen gara: Ni Lea naiz, neska argia eta ausarta; Manex nire anaia nagusia da, taldeko mutil barregarria; Mikel eta Ander ere Manexen adinekoak dira; eta azkenik, Uxue, nire lagunik onena, ez dakit zer egingo genukeen bera gabe. Gu Euskal Herriko irla baten bizi gara, beti hondartzan gaude.

Dena Manex eta bion etxean hasi zen, sotoan. Gure amak museoan egiten du lan eta behar dituzten gauza batzuk gordeta ditu, eta zeozer aurkitu genuen. Marko baten sartuta mapa arraro bat ikusi genuen, euskara zaharrean idatzita zegoena.

- Igual honek altxor batera eramango gaitu.- esan nuen.
- Bai, zera! Zer zarete 5 urteko ume batzuk?- esan zuen Anderrek.
- Ba nik begiratuko nuke, igual Leak arrazoi du.- Mikelek.
- Bale.- azkenik Anderrek.
- Ba... bagoaz?- galdetu zuen Uxuek.
- Noski! Ez dugu ezer galduko.- esan zuen Manexek

Mapako argibideei jarraituz, kobazulo batera iritsi ginen.

- Zer da hau? Hemen ez dago ezer.- Ander kexaka.
- Normala, oraintxe bertan heldu gara, bilatu beharko dugu.- Manexek erantzun zion.
- Ba sartu beharko gara, ez?- lehenengo sartu zena Mikel izan zen eta bat-batean oihuka hasi zen. Hostoz estalitako zulo batetik erori zen.
- Mikel! Ondo zaude? - denok kezkatuta geunden.
- Bai, hostoen gainean erori naiz. Jaitsi hona behera, zeozer aurkitu dudala uste dut.

Pentsatu gabe bota egin nintzen.

- Egia,- esan nuen- hemen zerbait idatzita dago -, irakurtzen hasi nintzen -
"Oraindik ez duzu aurkitu, baina bide onetik zoaz. Orain aukeratu beharko duzu."
- Bi bide desberdin zeuden, bi koba txiki.- Zuek, etorri hona!

Gainontzeko guztiak jaitsi ziren eta lekua ikertzerak joan ginenean, nahi gabe estropezu egin nuen eta bat-batean arroka batzuk erortzen hasi ziren.

-Zer egin duzu?- harrituta galdezka hasi zitzaizkidan.

-Ez dakit.- beldurtuta ni.

-Lurrikara bat da!- korrika hasi ginen. Arroka koba bat tapatu zuten, beraz gelditzen zenera joan ginen.

Korrika jarraitu genuen putzu bat aurkitu genuen arte. Uda zenez, bero asko genuen eta freskatzeko bainu bat hartzea adostu genuen. Uretan geundela, putzuan bi koba lotzen zituen pasabide bat zegoela ikusi genuen, beraz, murgiltzea erabaki genuen. Han beste mezu bat zegoela ikusi genuen.

-Beste mezu bat da!- esan zuen Uxuek- "Gertu zaude, ez amore eman. Orain harria bakarrik ikusten duzu, baina bide onetik joaten bazara, natura ikusiko duzu."

-Ez dakit zuek, baina ni lehertuta nago, eta bihar jarraitzen badugu?- galdetu zuen Anderrek.

-Niri ondo iruditzen zait.

-Niri ere.

-Ongi, ba bihar jarraituko dugu.- lurrean bota ginen lo egiteko.

-Ez al duzue pentsatzen zein kezkatuta egon behar duten gure gurasoek orain? Ez genien esan ere egin alde egingo genuela.- esan zuen Uxuek.

-Arrazoi duzu,- aitortu nuen- ez ginen etorri behar.

-Baina etorri izan ez bagina ez ginateke egongo gauden tokian, agian altxor bat eta guzti lortuko dugu.- esan zuen Manexek- Ez kezkatu, arrebatxo.- azkenik lotara joan ginen.

Hurrengo goizean esnatu bezain pronto, "natura" bilatzen hasi ginen. Pareta batetik eguzki izpiak sartzen ziren arroka tartetik.

-Argia sartzen bada, harri tartetik kanpora doala esan nahi du.- esan zuen Uxuek.

-Agian natura da!- Mikelek.

Denok batera arroka guztiak kentzen hasi ginen gutxinaka, zula bat zegoen kanpora eramaten zuena. Oihan txiki bat zen, landare eta kolore guztietako lorez betea, eta erdian harri erraldoi bat zegoen, gerturatu ginen.

-Zer da?- galdetu nuen.

-Ez dakit, baina zeozer idatzita du.- esan zuen Manexek- "Lortu duzue".

-Aiba! Kofre bat da!- Uxuek.

Zabaldu genuen, urrezko txanponak eta harri bitxiez beterik zegoen.

-Azkenik!- Ander pozik- Ahal duzuen guztia poltsikoetan sartu, gero bueltatuko gara norbaitekin.

Ahal genuen guztia hartu genuen eta oihaneko ibaitik kostara abiatu ginen eta gure etxeetara bueltatu ginen. Gure gurasoei dena kontatu genien eta egun gutxitara kazetariak etorri ziren galdezka:

-Nondik atera dituzue gauza horiek?

Dena azaldu genien eta ospetsuak bilakatu ginen egun batetik bestera. Abentura txiki bat bilatzen altxor bat aurkitu genuen.

BENETAKO IPUINA

C MAILA
3.saria
ZUHAITZ
LARRAÑAGA ELGETA

Bazen behin Soraluzen bizi zen familia bat. Etxean ama, semea eta alaba bizi ziren. Ekaitza zegoen gau hartan eta Amaia, Unax eta June afaltzen zeuden. Afaldu ondoren ohera joan ziren eta June-k ipuin bat kontatzeko eskatu zion amari. Amaia ipuina kontatzen hasi zen.

Munduan beste asko bezala, bazen txinatar bat Deban bizi zena. Haren izena Jon zen eta adoptatua izan zen 3 hilabeterekin. Jonek eskolan ez zuen oso ondo pasatzen lagunik ez zituelako. Gainera, bere gelakide batzuk bere jatorriaz barre egiten zuten. Jon ez zen ausartzen inori esaten eta urteetan zehar jazarpena jaso zuen.

Jonek negarrez igarotzen zituen gauak, baina ez zen inor konturatzen.

Behin eskolatik etxera heldutakoan, gurasoek berri on bat eman zioten Joni. Amaren lana zela eta Soraluzera joan behar ziren bizi izatera.

Jon, pozik zegoen arren, pena itxura adierazi zuen gurasoen aurrean.

Hurrengo egunean Soraluzera iritsi ziren eta eskolara joateko ordua zen. Gelara poz-pozik sartu zen eta bere gelakideek ongi-etorri bikaina eskaini zioten.

Bere historia kontatu eta gero, Soraluzeko ikasleek, edozertarako bere laguntza eskaini zioten. Jon egun batzuk igarotakoan oso ondo integratu zela konturatu zen eta herriko ekintza guztietara joaten zen oso pozik.

Amaiak bere ipuina kontatzen amaitu zuen eta galdera batzuk egin eta gero, June eta Unax lokartu egin ziren. Umeei asko gustatu zitzaaien amak kontatutako ipuina, baina egun gogorra izan zen hura eta oso nekatuta zeuden.

Hurrengo egunean eskolara joateko ordua iritsi zen eta aldapa luzea igo ondoren, eskolako atara iritsi ziren arnasestuka. Gelara heldutakoan irakasleak berri bat eman zuen. Berria, ikasle berri bat zetorrela zen eta gelara sartu zenean, Amaiak kontatutako ipuina benetakoa bihurtu zen.

Ikasle berria Jon deitzen zen, txinatarra zen eta Debatik zetorren. Jonek bere historia kontatu zuen eta gauean amak kontatu zuenaren oso antzekoa zen.

Unaxek etxera heldutakoan amari kontatu zion gertatutakoa eta Amaia harrituta gelditu zen.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Soralueko Plazan.